

PRENTSA OHARRA: 2020.07.07

Bikaintasuna Euskal Ikasketetan X ikastaroak aniztasunak euskal kulturaren duen papera aztertuko du

- Ikastaroa uztailaren 8 eta 9an egingo da Donostiako Miramar jauregian eta, lehen aldiz, bi modutan eskainiko dute: aurrez aurre eta online bidez.
- Euskararen irakaskuntzan eta kultur aniztasunean adituak diren hainbat hizlarik hartuko dute parte bertan; izen-ematea bihar arte egongo da irekita.

Etxepare Euskal Institutuak, urtero bezala, euskararen irakaskuntza helburu duen ikastaro bat antolatu du **UPV-EHUko Udako Ikastaroekin** lankidetzan. Ikastaroak Etxepare Euskal Institutuak munduan zehar duen **irakurletza sareko** euskara eta euskal kultur irakurleei formakuntza ematea du xede; baina interesa duen **edonorentzat** dago zabalik.

Etxepare Euskal Institutuaren irakurletza sarea Euskal Herritik kanpoko **35 unibertsitatez osatua dago** eta horietan **euskara eta euskal kultura** irakasten duten **irakurleak 29** dira aurten. Institutuak haien formakuntza bultzatzeko edota etorkizunean irakurle izan nahi duten horientzako hainbat ikastaro antolatzen ditu urtean zehar, eta **ikastaro ireki hau** da horietako bat.

Aurten, COVID-19ak eragindako larrialdi egoera dela eta, ikastaroa **bi modutan** eskainiko da: batetik, egitaraua urtero egin izan den moduan garatuko da Miramar jauregian, hizlarien eta entzuleen **aurrez aurreko** presentziarekin (nahiz aditu batzuk

atzerritik konektatuko diren pantailen bitartez). Bestetik, ordea, nahi duenak **online** modalitatean izena eman eta nonahitik jarrai dezake ikastaroa, plataforma digital baten bitartez.

Aurtengo udako ikastaroak '**Bikaintasuna Euskal Ikasketetan X: aniztasuna euskal kulturaren**' du izena, eta bizi dugun garai honetan aniztasunak euskararen eta euskal kulturaren irakaskuntzan duen eragina eta irakaskuntza horri egin diezaiokeen ekarpena aztertuko dira bertan. Horretarako, **Garbiñe Iztueta Goizueta** Etxepare Euskal Institutuko Euskara Sustatu eta Hedatzeko zuzendariaren gidaritzapean antolatutako ikastaro honek hizkuntzaren, zinemaren, literaturaren eta, oro har, kulturaren esparruan aniztasuna ikertu duten adituak gonbidatuko ditu.

Bi egunetan zehar jorratuko den egitarauak hainbat **helburu** izango ditu; orokorra, aniztasunaren kontzeptura hurbilketa teoriko bat egitea. Horrez gain, euskara eta euskal kulturaren aniztasuna ezagutzea; aniztasunak euskararen eta euskal kulturaren irakaskuntzan duen eragina eta egin diezaiokeen ekarpena aztertzea; nazioartean euskara eta euskal kultura irakasten ari diren edo horretan jardungo duten irakasleei aniztasunaren berri ematea; edota Etxepare Euskal Institutuko irakurletza sareko irakurleen jardunaren berri eman eta esperientziak partekatzea bilatuko da ikastaroan, besteak beste.

10 aditu gonbidatu dituzte aurtengo ikastarora hitzaldiak ematera (**Garbiñe Iztuetaren** aurkezpenaz gain): **Lorea Agirre Dorronsoro** (Jakin aldizkariko zuzendaria), **Garazi Ansa Arbelaitz** (arte historialaria), **Adolfo Arejita Oñarte-Etxebarria** (euskal filologian aditua), **Andoni Barreña Agirrebeitia** (hizkuntza ikerlaria), **Ander Beristain** (hizkuntzalari eta euskara eta euskal kultur irakurlea), **Itxaro Borda** (idazlea), **Estibaliz Ezkerra** (literaturan doktore eta euskara eta euskal kultur irakurlea), **Iratxe Fresneda Delgado** (zinegile eta irakaslea), **Monika Madinabeitia Medrano** (Mondragon Unibertsitateko irakaslea eta ikerlaria) eta **Unai Nafarrate Errasti** (hizkuntzalari eta euskara eta euskal kultur irakurlea).

Ikastaroa Donostiako **Miramar Jauregian** egingo da eta 20 orduko balio akademikoa izango du. Horrez gain, amaitzean titulu bat emango zaio parte hartu duen orori. Matrikulatzeko epea zabalik da honezkero; [esteka honetan](#) aurki daiteke informazio osatua eta izen-emate orria.

Info+

Mikel Lasa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus